

Gomendatutako liburua:

-Rewald, John. "Seurat". Harry N. Abrams. New York. 1990.

NEOINPRESIONISMOA

Neoinpresionismoa edo Puntilismoa ere erabili dezakegu. Inpresionismoaren eratorpen gisa uler daiteke, eta beronen sustatzaile aipagarrienak Paul Signac eta George Seurat pintore frantsesak izan ziren. Eugene Chevreul-en lanak abiapuntutzat hartu zituzten. XIX.mendearen amaieran eta XX.aren hasieran, pintore horiek kolorearen tratamendua ulertzeko era berri bat ezarri nahi izan zuten; mugimendu horren arabera pigmentuak paletan nahastu ordez, puntu edo ukitu bereziak erabiliz nahasketa erretinan gertatzea lortu nahi zuten.

Signac-en arabera (Eugene Delacroixengandik Neoinpresionismora liburuan, 1899.ean) Dibisionismora eramango zuen prozesua Delacroixekin hasi zen.

Neoinpresionismoan kolore garbien nahaste optikoa erabiltzen zen. Koloreen banaketa metodikoa eta behaketa zientifikoaren bitartez, argitasun, kolore eta armonia handiena lortzen zituzten, ordura arte inoiz ez bezala.

Argi dago, beraz, Dibisionismoa pintura-teknikak eta zientzia optikoaren aurkikuntzak konbinatzeko ahalegina izan zela. Zentzu horretan, garrantzia handikoak izan ziren (jadanik aipatu ditugun Seurat eta Signacez gainera) Henri-Edmond Cross, Maximilien Luce, Théo van Rysselberghe eta hauen gisako pintoreak. Italian, Dibisionismoak 1885-1915 bitarteko urteetan Gaetano Previati pintorearen inspirazio teorikoaren menpean iraun zuen ("Principi scientifici del Divisionismo", 1906); Angelo Morbelli eta Giuseppe Pellizza da Volpedo ere jarraitzaile handiak izan ziren.

GAIARAKO ARTELAN INTESGARRIAK

GEORGES SEURAT

- "Asnières-en bainulariak" (1884)
- "Igande arratsaldea La Grande Jatte-n" (1885)
- "La Luzerne, Saint Denis" (1885)
- "Courbevoie-n Sena" (1885)
- "Le Bec du Hoc, Grandcamp" (1885)
- "Grandcamp-eko badia" (1885)
- "Dartsenaren angelua, Honfleur" (1886)
- "Bas-Butin-eko hondartza, Honfleur" (1886)
- "Courbevoie-ko zubia" (1887)
- "Modeloak" (1888)
- "Emakume gaztea makilatuz" (1890)
- "Le Chahut" (1890)
- "Zirkua" (1891)